

Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabineteko Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako Zuzendaritza Nagusia

JOSU BILBAO BEGOÑA

Loiun jaio zen 1978an. Ezkonduta dago eta seme bat eta alaba bat ditu.

PRESTAKUNTZA:

Lizentziaduna Zuzenbide Ekonomikoan, Deustuko Unibertsitatean.

ESPERIENTZIA PROFESIONALA:

Bere karrera profesionala kabinete juridiko baten hasi zuen zuzenbide administratiboari lotutako gaiak jorratuz; 2003an BEAZ enpresara iritsi zen eta bertan garatu du bere karrera profesionala. Beazen hasiera baten pertsona ekintzaileei eta enpresei laguntzeko proiektuen kudeatzaile lanak egin zituen enpresak sortzeko fase guztietako aholkularitza juridikoa eskainiz, negozio-planak aztertuz, berrikuntza prozesuen analisiak, analisi ekonomiko-finantzarioak eta inbertsioen analisiak eginez. Aldi berean Barne Trebakuntzako arduraduna eta Proiektuen Finantzaketaren arduraduna zen azkenean, 2013tik aurrera, BEAZeko Enpresa Transformaziorako Unitateko zuzendari izatera iritsi arte.

BEAZen burutu zuen etapan laguntzailea eta gainikuslea izan zen finantzen arloko bi libururen garapenean, "Financiación de un proyecto empresarial innovador en Bizkaia" (2009 urtea) eta "Manual de conceptos básicos de gestión económico-financiera para personas emprendedoras" (2011 urtea).

2016an eta 2017ko otsailera arte aholkulari postua bete zuen Bizkaiko Foru Aldundian, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailean alegia.

2017ko otsailetik 2019ko irailera arte Garbiker-eko zuzendari gerentea izan da. Urte horietan enpresaren emaitza ekonomikoa hobetzea lortu zen eta ordura arte emaitza negatiboak zirenak positibo bihurtu ziren. Aldi berean zerbitzu berriak garatu ziren eta enpresarako kudeaketa estrategikoko konponbideak ezarri ziren. Agintaldi horretan zehar, halaber, 5 puntu portzentual baino gehiago hobetu ziren Bizkaian birziklatze-jarduerari lotutako datuak. Aldi horretan Berziklatu eta Bizkaiko Zabor Berziklategia (BZB) enpresetako Administrazio Kontseiluetako kidea izan da eta bi erakunde horietako lehendakaria izan da.

2019ko irailean Bizkaiko Foru Aldundiaren Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabineteko Planen Koordinazio, Ebaluazio eta Jarraipenerako Zuzendaritza Nagusira iritsi zen eta bertan Bizkaiko Foru Aldundiak dituen plan guztien jarraipen-funtzioak garatzen ditu.

Era osagarrian, 2012tik negozio-planei eta ekintzailetasunari buruzko moduluetakotxostengilea da Deusto Business School-en.

HIZKUNTZAK

Euskaraz eta ingelesez hitz egiten du eta idazten du.